



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Berdintasuna
Igualdad

Berdintasunaren aldeko Kontseilu Sektoriala 2016ko 1^o Bilkura

Consejo Sectorial para la Igualdad 1^a Sesión de 2016

Deialdia egin duena Convoca	Donostiako Udala Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián
Data, tokia eta ordua Fecha, lugar y hora	2016ko otsailak 18/ 18 de febrero de 2016 Ulia Sala, Udaletxea / Sala Ulia. Edificio Consistorial 18:00etan / A las 18:00 horas
Amaiera ordua Hora de finalización	19:40tan / A las 19:40 horas

GAI-ZERRRENDA: ORDEN DEL DÍA:

<ol style="list-style-type: none"> 1. Aurreko aktaren onarpena. 2. Eztabaigaien proposamena. 3. Bileren daten proposamena. 4. Datak eta eztabaidak zehaztu. 5. Bestelakoak. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Aprobación del acta anterior. 2. Propuesta de temas a debatir. 3. Propuesta de las fechas de eunión. 4. Concretar las fechas y los debates. 5. Varios.
--	---

BILERAN PARTE HARTU DUTE: HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA PRESIDENCIA DEL CONSEJO	PSE-EE (Duñike Agirrezabalaga) Auzoetako eta deszentralizazioko, Erantzunkidetasun Zibikoko, Berdintasuneko eta Lankidetzako zinegotzi ordezkaria PSE-EE (Duñike Arrizabalaga) Concejala delegada de Barrios y Descentralización, Corresponsabilidad cívica, Igualdad y Cooperación
TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS	<ol style="list-style-type: none"> 1. EAJ-PNV 2. EH BILDU 3. IRABAZI - GANAR DONOSTIA 4. PSE – EE
HERRITARREN ELKARTE ETA BERDINTASUNAREN ARLOAN GIZARTE-OSPE BEREZIA DUTEN KOLEKTIBOAK ENTIDADES CIUDADANAS,	<ol style="list-style-type: none"> 1.- PLAZANDREOK 2.- INTXAURRONDO BERRI 3.- LAGUNAK 4.- LAGUNAK 5.- ASADE Sindikatua / Sindicato ASADE 6.- ASADE Sindikatua / Sindicato ASADE

COLECTIVOS DE ESPECIAL RELEVANCIA SOCIAL EN EL ÁMBITO DE LA IGUALDAD	<p>7.- Emak. Bananduen Elkartea / Asociación de mujeres separadas 8.- ERNE 9.- HAURRALDE Fundazioa 10.- HAURRALDE Fundazioa 11.- ARRATS Elkartea / Asoc. ARRATS 12.- ELKARTU (Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazioa / Federación de Personas con Discapacidad Física de Gipuzkoa 13.- DANDAI 14.- FORO MUJERES Y CIUDAD 15.- 1.Herritar norbanakoa / Representante ciudadana nº 1 16. Herritar norbanakoa / Representante ciudadana nº2</p>
EZ DIRA ETORRI ETA/EDO DESENKUSATU DIRA EXCUSARON SU ASISTENCIA Y/O NO ASISTIERON	EMAKIN
UDAL TEKNIKARIAK CUERPO TÉCNICO MUNICIPAL	Berdintasun, Lankidetzeta, GG.EE.ak eta Aniztasun kultureko Atalburua. Jefa de Sección de Igualdad, Cooperación, Derechos Humanos y Diversidad Cultural Berdintasun Eragilea Agente de Igualdad
PARTAIDETZAREN DATUAK DATOS DE PARTICIPACIÓN	<p>20 BKSeo pertsona kideak jarraian adierazten direnez gain: Berdintasuneko zinegotzia, aholkularitza teknikoko ordezkari 2, idazkaritza tekniko lanetan.</p> <p>Emakumezkoak / Mujeres = 22 Gizonezkoak / Hombres = 0</p> <p>20 personas integrantes del CSI, además de la Concejala delegada de Igualdad, y 2 representantes del cuerpo técnico municipal como secretaria técnica</p>
KONTSEILUKO IDAZKARITZA: SECRETARÍA DEL CONSEJO	Berdintasun Bulegoa - Negociado de Igualdad : Emakumeen Etxea, Okendo 9 / 943 48 34 64 / berdintasuna@donostia.eus

SAIOAREN BILAKAERA:
DESARROLLO DE LA SESIÓN:

1. Aurreko Kontseiluaren akta onartzea	1. Aprobación del acta del Consejo anterior.
<p>Aldaketarik egiteko proposamenik edo iruzkinik ez dagoenez, aurreko akta onartu egiten da.</p>	<p>Al no haber ninguna propuesta de modificaciones, ni comentario al respecto, se aprueba el acta anterior.</p>
2. Eztabaidatuko diren gaien proposamena	2. Propuesta de temas a debatir.
<p>Batzorde Iraunkorrak egin duen lana azaldu da. Aurten 3 dira Kontseiluan eztabaidatzeko gai nagusiak: indarkeria matxista, prostituzioa eta hiriburutasuna. Ondoren hasi den eztabaidan bloke bakoitzean sar daitezkeen azpigaiez eta edukiez hitz egin da:</p> <p><u>Indarkeria matxista:</u> gai zabala da. Kontseiluan parte hartzen dutenen ekarpenen bidez 6 azpigai bereizi dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.- Erasoen aurkako Emakumeen Etxeko Batzordea: Kontseilura gaia azaltzera etor daitezela proposatu da, nola koordinatu eta lagundu ikusteko. 2.- Emakumeen genitalen mutilazioa: Osakidetzan protokola aurkeztu berri da, Emakundeek bultzatuta. Eztabaida txikia hasi da, emakumeen genitalen mutilazioari buruz, baina beste baterako uztea erabaki da. Halaber, Istanbulko hitzarmena aipatu da, gai horri buruzko dokumentu garrantzitsua dela esanez. 3.- Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sistemako baterako hezkuntzarako eta genero indarkeria saihesteko I. Plan zuzentzailearen ebaluazioa. Dirudienez, Plana urtebetez luzatu da; beraz, indarrean jarraitzen du 2016an eta ebaluazioa egiten hasi dira. 4.- Batzorde iraunkorraren iritzi, gainera, ordezkaritza politikoen zatia, dagoeneko ez da nahikoa indarkeria matxistaren kontrako adierazpenak egitea. Publikoki gehiago agertu beharra eskatu da, eta ez inorengana iristen ez den adierazpen instituzionala. 5.- Iaz Aldundiak indarkeriari buruzko terminologia proposatu zuen eta terminologia hori Donostiako jardueren protokoloan biltzea proposatu da. <p>Alde batetik, Udalak alderdi kritikoei buruz egin duen lanak indarkeria matxistarekin lotura argia duela esan da eta, halaber, komenigarria litzatekeela 4/2005 Legea aztertzea, zeren Legeak 10 urte bete baititu eta ia ez da gauzatu.</p> <p><u>Prostituzioa</u> – Batzorde Iraunkorrean gai horri buruzko gogoeta egiten da, zeren Udalean mozioa aurkeztu baita eta legezkatzea zenbait alderdi politikoren programan dagoen gaia baita. Une hauetan, jardunbidea baino gehiago, hausnarketarako gaia izango litzateke, zalantzarik gabe aurkako iritziak sorraraziko dituen gai horrentzako abiapuntu gisa.</p>	<p>Se da cuenta del trabajo realizado por la Comisión Permanente, que propone 3 grandes temas a debatir este año en el Consejo: violencia machista, prostitución y capitalidad, abriéndose a continuación un debate, en el que se desglosan los subtemas y contenidos que podría haber dentro de cada bloque:</p> <p><u>Violencia machista:</u> tema amplio, en el que, con aportaciones de diversas integrantes del Consejo, se diferencian hasta 6 subtemas:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.- Comisión anti-agresiones de la Casa de las Mujeres: se propone que vengan a contar al Consejo en qué están trabajando, y ver cómo coordinarse y apoyar. 2.- Mutilación Genital Femenina: se acaba de presentar un protocolo en Osakidetza impulsado por Emakunde. Se abre un breve debate sobre la MGF, pero se decide dejar para otro momento. Se menciona también como documento importante sobre el tema el convenio de Estambul. 3.- Evaluación del I Plan director para la coeducación y la prevención de la violencia de género en el sistema educativo de Gobierno Vasco. Al parecer, se ha prorrogado 1 año el Plan, de manera que sigue en vigor en 2016, y también han comenzado a evaluarlo. 4.- La comisión permanente considera, además, que ya no es suficiente con que las y los representantes políticos sólo hagan declaraciones contrarias en temas de violencia machista, sino que se pide mayor presencia pública, no una declaración institucional de la que no se entera nadie. 5.- La Diputación propuso una terminología sobre violencia el año pasado, y se propone que el protocolo de actuación de Donostia lo recoja. <p>Por otro lado, se menciona que el trabajo que realiza el Ayuntamiento sobre puntos críticos tiene una clara relación con la violencia machista, y también que sería conveniente analizar la Ley 4/2005, que ha cumplido 10 años, y en cuestiones de violencia prácticamente no se ha cumplido.</p> <p><u>Prostitución</u> – en la Comisión Permanente se ha pensado en este tema porque en el Ayuntamiento se ha presentado una moción, y porque la legalización es un tema que está en los programas de algunos partidos políticos. Sería una línea no tanto de acción en estos momentos, sino de reflexión, como punto de partida a un tema en el que, sin duda, habrá opiniones encontradas.</p>

DSS2016 (Europako Kulturaren Hiriburua 2016) – Ekitaldi garrantzitsua da eta, nahitaez, generoaren perspektiba zeharkatuta eduki behar du eta hirian urte osoan zehar agerian egongo den gaia da. Ideia hori lehenago egin zen bideo batean oinarritzen da. Bideo horretan, emakumea ez zen agertzen eta gero zuzendu egin zen, baina gai zehatz hortaz aparte, interesgarria da jakitea DSS2016-k nola tratatzen dituen gizonetako eta emakumeen parte-hartze orekatua, arte eta kultura feministak, emakume artistak, eta abar. Gainera, DSS2016-ren lanaren ardatzetako bat rola haustea dela kontuan hartu behar da. Horrez gain, komenigarria da elkarrizketa egitea, urtean zehar kexu edo iradokiren bat badago, bidea zabalik uzteko.

Hitzartu denez, berdintasun saila DSS2016-arekin harremanetan jarriko da, Kontseiluaz kanpoko saio monografikoa egin dadin, goian aipatutako gaietako buruzko informazioa emateko. Berriz esan denez, DSS2016-ri esan behar zaio saioa ez dela erakunde zer den eta bertan zer egiten den azaltzeko, ikuspuntu feministatik zer egingo den azaltzeko baizik. Aste Santua baino lehen egiteko ahalegina egingo da, denboran gehiegi luza ez dadin. Deialdia e-maila bidez egingo da.

Gizarte Kontseiluan Kontseiluaren ordezkaria denak berri eman duenez, foro horretan bazterketaren gaia lantzea erabaki da eta laster horri buruzko ikerketa kuantitatiboa bidaliko dute. Bazterketa Kontseiluan landu beharreko blokea izatea proposatu du. Onartu egin da.

Bestalde, Kontseiluko zenbait kidek gogorarazi dutenez, Kontseiluak ere Udalaren berdintasun politiken kontrola egin behar du; beraz, berdintasun planen edo aurrekontuen segimendua egin behar da. 2016ko aurrekontuen txostena egin da genero perspektibarekin, baina aurrekontuak egin eta gero egin da eta ez alde aurretik. Kexatu egin dira, zeren Kontseiluko kideei ez baitzaie Interneten ezarrita dagoen txosten horri buruzko berriazko informazioirik eman. Berdintasun sailak txostena lehenbailehen bidali behar dela erabaki da.

Bestalde, Kontseiluaren hurrengo saioan (apirilaren 21ean) Udalaren III. Berdintasun Planaren 2016rako urteko Plan Operatiboaren aurkezpena egitea erabaki da. Aldez aurretik, esteka bidaliko da Planera.

Halaber, Kontseiluko kide guztiei gonbidapena bidaliko zaie, 3 lantaldetako batean parte hartzeko aukera emanez. Lantaldeak hauek dira: indarkeria matxista (lehendik dagoena), prostituzioa (berria) eta bazterketa (berria). Lantaldeetan izena emateko azken eguna martxoaren 10a da, horrela, bakoitzak bere lan plana ekarri ahal izango du Kontseiluaren hurrengo saiora.

3. Batzarrak egiteko daten proposamena

Parte hartu duten guztiei bidalitako Batzorde Iraunkorren aktan, batzarrak egiteko datak ezarrita daude. Ezarritako datak hauek dira: otsailaren 18an, apirilaren 21ean eta ekainaren 16an Kontseiluaren Osoko Bilkurak. martxoaren 10ean eta maiatzaren 19an Batzorde Iraunkorrenak. Udazkeneko datak geroago ezarriko dira.

DSS2016 (Capital europea de la cultura 2016) – es un evento importante, que necesariamente tiene que tener transversalizada la perspectiva de género, y es un tema que va a estar presente en la ciudad a lo largo de todo el año. La idea surgió a raíz de un vídeo que realizaron, en la que se invisibilizaba a las mujeres, y que luego se corrigió, pero más allá de ese tema puntual, es interesante saber cómo está tratando DSS2016 la participación equilibrada de mujeres y hombres, el arte y cultura feminista, mujeres artistas, etc., además de que uno de los ejes de trabajo de DSS2016 es la ruptura de roles. Conviene, además, tener una interlocución, de modo que haya un canal abierto por si hay alguna queja o sugerencia a lo largo del año.

Se acuerda que el departamento de igualdad contactará con DSS2016 para realizar una sesión monográfica, aparte del Consejo, en el que nos den cuenta de los temas arriba reseñados. Se insiste en que hay que transmitirles que no es una sesión para contarnos lo que es y hace DSS2016, sino centrada en la perspectiva feminista. Se intentará convocar antes de Semana Santa, a fin de que no se alargue mucho en el tiempo. Se enviará convocatoria por e-mail.

La representante del Consejo en el Consejo Social informa de que en ese foro se ha decidido trabajar el tema de exclusión, y pronto enviarán un estudio cuantitativo al respecto. Propone que la exclusión sea un bloque más a trabajar en el Consejo. Se acepta.

Por otra parte, varias integrantes del Consejo recuerdan que éste también debe hacer control de las políticas de igualdad del Ayuntamiento, por lo que hay que hacer seguimiento de los planes de igualdad o los presupuestos, habiéndose realizado un informe de presupuestos 2016 con perspectiva de género, aunque se ha realizado posteriormente, y no previamente a la elaboración de los presupuestos. Hay quejas porque no se ha informado expresamente a las integrantes del Consejo de la realización de dicho informe, que está colgado en internet. Se acuerda que el departamento de igualdad lo envíe cuanto antes.

Por otra parte, se acuerda realizar en la próxima sesión del Consejo (21 de abril) una presentación del plan operativo anual para 2016 del III Plan de Igualdad del Ayuntamiento. Previamente, se enviará el link al Plan.

Se enviará también una invitación a todas las integrantes del Consejo a firmar parte de alguno de los 3 grupos de trabajo: violencia machista (ya existente), prostitución (nuevo) y exclusión (nuevo). Fecha tope para apuntarse a los grupos de trabajo, 10 de marzo, a fin de que cada uno de ellos pueda traer su plan de trabajo a la siguiente sesión del Consejo.

3. Propuesta de las fechas de reunión

En el acta de la Comisión Permanente enviada a todas las participantes se fijan las fechas de reunión. Las fechas fijadas son las siguientes: 18 de febrero, 21 de abril, y 16 de Junio El Pleno del Consejo. 10 de Marzo y 19 de Mayo Comisión Permanente. Las fechas de otoño se fijarán más adelante.

4. Datak eta eztabaidak zehaztea

Oraingoz ezarri denez, Kontseiluaren hurrengo bilkuran, hau da, apirilaren 21ean, Berdintasun Planaren urteko plana aurkeztuko da. Horrez gain, hiriburutasunaren gaiari ekiteko berariazko data ezartzea hobe dela erabaki da.

5. Bestelakoak

* Lilatoiko ordutegiaren aldaketa: Kontseiluko kide batek esan duenez, Udalaren mugikortasun sailaren aginduz, ordubete aurreratu da Lilatoiko irteera, eta horrek eragozpenak sorrarazi ditu parte-hartzaileengan, zeren nekezagoa izan baita, bizitza pertsonalera eta zaintze lanetara egokitzea. Berdintasun sailean eta zinegotzigoan ez zekiten ezer. Lortutakoan atzera pausorik ezin direla onartu erabaki da eta, beste lasterketa batzuen ordutegia aldatzen ez badira, Lilatoiko ordutegia aldatzea ere ezin da onartu. Berdintasuneko zinegotzia mugikortasunekoekin bilduko da, gaiaren berri jakiteko eta Kontseiluak ordua ez aldatzeko hartu duen erabakia bete dadin eskatzeko.

* Udalaren diru laguntzak: Oinarrietan 2 aldaketa egin dira: elkarteek orain 2 proiektu (lehen bakarra zen) eskatzeko aukera dute eta proiektu bakoitzerako 3.000 €-ko gehienezkoa kendu egin da. Diru kopurua handiagotu egin da, lehen 43.000 €-koa zen eta orain 60.000 €-koa da. Epea otsailaren amaierara artekoa dela gogorarazten da.

* Hiriko gune kritikoak: Laster, posta mezua bidaliko zaie hiriko gune kritikoaren diagnostikoa egiten parte hartu zuten elkartei, 2016ko martxoaren 17an arratsaldeko 6etan (18:00) Emakumeen Etxean egingo den batzarrera gonbidatuz. Batzar horretan, erantzuna emango zaie parte hartu zuten elkartei eta 2015ean egin ziren eta 2016an egingo direnen hobekuntzen berri emango da.

Hiriko gune kritikoei buruzko txostenera jotzeko lotura bidaltzea adostu da.

* Martxoaren 8a: Urtero bezala, programa bateratua prestatzen ari gara. Programa horretan, elkarteek egiten dituzten jarduera guztiak bildu dira. Elkarteren batek hedatzeko eta abar, berdintasun sailaren laguntza behar badu eska dezala. Martxoaren 2ko prentsaurrekoan parte hartzeko gonbidapena egin zaie. Bestalde, alderdi guztiekin adostutako adierazpen instituzionala prestatzen ari dira.

* Azkenik, emakume errefuxiatuen gaia ipini da mahai gainean. Zenbait talde feministak gaia tratatu nahi dute martxoaren 8aren inguruan, baina oraindik ez dakite zein formatutan: sinadurak batzeko mahaia ipiniz, elkarteentzako dirua bilduz, eta abar. Zenbait Emakumeen Etxek atzarraldiak antolatu dituzte. Parte hartzeko aukera eskaintzen zaie denei.

4. Concretar las fechas y los debates.

De momento se fija que en el siguiente pleno del Consejo es decir, el 21 de Abril se presentará el plan anual del Plan de Igualdad. También se decide que para abordar el tema de capitalidad mejor poner una fecha específica para ello.

5.- Varios

* Cambio horario Lilaton: Una integrante del Consejo informa de que, por imperativo del departamento de movilidad del Ayuntamiento, se ha adelantado 1 hora la salida de la Lilaton, con el consiguiente perjuicio para las participantes, por el aumento en la dificultad de conciliación con la vida personal y los cuidados. En el departamento y la concejalía de igualdad no se sabía nada. Se acuerda que no se pueden aceptar pasos atrás en lo conseguido y que, así como no se cambian los horarios de otras carreras, tampoco se puede permitir que se cambie el de la Lilaton. La concejala de igualdad se encargará de reunirse con movilidad para informarse de cómo está el tema, y trasladar la exigencia del Consejo de que no se cambie la hora.

* Subvenciones del Ayuntamiento: Se han realizado 2 cambios en las bases: las asociaciones pueden pedir ahora 2 proyectos (antes era sólo uno) y se ha eliminado el máximo de 3.000 € por proyecto. La partida ha aumentado de 43.000 € a 60.000 €. Se recuerda que el plazo finaliza a finales de febrero.

* Puntos críticos de la ciudad: En breve se enviará un correo invitando a las asociaciones que participaron en el diagnóstico de puntos críticos de la ciudad a una reunión que se realizará el 17 marzo 2016 a las 18:00 en la Casa de las Mujeres. En esa reunión, se hará una devolución a las asociaciones que participaron, informando sobre qué mejoras se han hecho en 2015 y cuáles se harán en 2016.

Se acuerda que se enviará el enlace al informe sobre puntos críticos de la ciudad.

* 8 de marzo: Como cada año, estamos preparando el programa unitario donde se recogen todas las actividades que realizan las asociaciones. Si alguna asociación necesita el apoyo de igualdad para difusión, etc., que lo pidan. Se les invita a participar en la rueda de prensa el 2 de marzo. Por otra parte, se está preparando una declaración institucional consensuada con todos los partidos.

* Por último, se pone sobre la mesa el tema de las refugiadas, y que varios grupos feministas quieren tratar el tema en torno al 8 de marzo, aún no se sabe el formato: poniendo una mesa con firmas, recaudando dinero para las asociaciones, etc. Hay Casas de las Mujeres que van a organizar vigiliadas. Se invita a todas a colaborar.